



OÑATIKO UDALERRIKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA

SARRERA

2016ko irailaren 20an udalerrri honetako ondasun higiezin hiritarretako lurzoruaren eta eraikinen balio ponentziaren berrikuspena onartu zuen Diputatuen Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastral berriak lortu ziren. Balio katastral berri horiek 2017ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Horregatik guztiagatik, udalerriko lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hau dela medio:

- **2017ko urtarrilaren 1ean indarrean jarri zen ondasun higiezin hiritarreko lurzoruaren eta eraikinen balio ponentziaren berrikuspena dela eta jakinarazitako balioei jarritako errekurtsioak direla eta higiezin merkatu balioen azterketa dela medio.**

EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantziaren ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- 016 eta 808 zona katastralen mugak aldatzen dira.**
- 2.- O azpizona katastrala esleitu zaie 016 zona katastralean sartutako kaleei edota kale tarteei.**



I ERANSKINA

Hirilurraren mugatze planoak.

II ERANSKINA

Zona katastralen planoak.